2013ko martxoaren 3a: memoria gerrak eraildakoei

Ezaguna da Espainiako Gerrak, zein ondorengo erregimen frankistak Euskal Herrian kalte nabariak eta biktima ugari eragin zituela. Urte luzez oinaze hori isilarazia izan da, beldurraren eta mehatxuaren ondorioz. Anitzetan, biktimek borreroen eta salatarien ondoan bizitzen jarraitu behar izan zuten, eta horrek ez zuen, inondik ere erraztu bake egoera batek eskatzen zuen justizia eta erreparazioa egiteko bidea.

Une latzak izan ziren. Anitz izan ziren bortxan gerrara deituak. Etxean gelditu zirenek ere sufrimendu ugari bizi izan zuten: baliabide eskasia, gosetea, beldurra, mehatxua, kanpoan zirenen berri falta, ihes egindakoak... Gerra batek gizakiaren alderdirik krudelena uzten du agerian. Eta Espainiako Gerra ez zen salbuespena izan horretan. Europan izan den gerrarik krudelenetakoa izan zen. Gerraondoko urteak ere ez ziren batere errazak izan. Erregimen frankistaren bortizkeriak jarraitu zuen, eskubide falta, askatasunik gabeko gizartea izan zen.

Urte ilunak izan ziren. Baita Beran ere. Bonbardaketak, atxilotuak, jazartuak, zaurituak, desagertuak eta fusilatuak. Bera izan zen Nafarroa guztian fusilatu gehien izan zuen herria. Nagusiki, Gipuzkoako atxilotutakoak izan ziren: Donostiatik, Irundik, Villabonatik, Zizurkildik, Tolosatik, Asteasutik, Astigarragatik... gauez kamioietan ekarri, herriko harrobian fusilatu, eta hilerrian lurperatu zituzten.

Ondorengo ikerketak ere ez dira errazak izan. Dokumentazio faltak egia osoa argitzea eta gertatutakoaren benetako dimentsioa irudikatzea zaildu du. Administrazioek ere ez dute orain arte behar bezainbertzeko ahaleginik egin gertatutakoa argitzeko. Eta oraindik, bada argitzeko ahalegin horri uko egin eta oztopoak paratzen segitzen duenik. Krudelkeriaren arduradunek ez zuten sekula barkamenik eskatu. Espainiako estatuak ere ez. Edonola ere, egungo gizartean gehiengo soziala gara gertatutakoa argitu eta egia ezagutu nahi dugunak. Eta borondate horri erantzunez, 2013ko martxoaren 3an, Berako Udalaren ekimenez, omenaldi unkigarria egin zen Beran, ia 77 urte beranduago, egia ezagutzeko konpromisoarekin bat eginez. Berako Udalarekin batera izan ziren bertan, eraildako herritarretako anitzen udal ordezkariak ere: Tolosakoak, Villabonakoak, Asteasukoak, Etxalarkoak, Igantzikoak, Zizurkilgoak...

Egia ezagutzea da justizia egiteko oinarrizko araua. Kaltea ezin da guztiz moldatu. Bertzeren artean, berandu datorrelako, hagitz berandu. Nolanahi ere, uste dugu berandu izanagatik, egin beharrekoa dela erreparazioa, herritar guztiek jakin dezaten zer gertatu zen, ezagutu dezaten gerraren alderdirik lazgarriena. Memoriarik gabeko herri batek nekez eraiki dezakeelako gizarte kohesionatua, ezin delako bake sendorik egin gibelera begiratu gabe.

Guri dagokigu hildako eta desagertutako gizonak gogora ekartzea. Baina baita haien ondoan ziren bertzelako gizon-emakumeek pairatutako sufrimendua ere. Haurren kargu egoerarik zailenetan aurre egin behar izan zuten alargunak, gurasoak, anai-arrebak eta seme-alabak.

Euskal Herriak hamarkadatan anitz sufritu du. Bakea eraikitzeko tenorea ailegatu da, eta guztion ahalegin eta konpromisotik behar du. Eraildakoek erein zuten libertadea loratzen hasteko tenorea da. Sufrimendua, krudelkeria, gerraren oinazea ahantzi gabe, berriro ere gerta ez dadin, adiskidetzearen aldeko mezua zabaldu nahi dugu. Gorrotorik gabeko gizartea eraikitzeko konpromisoa hartzen dugu, askatasunean, justizian eta aukera berdintasunean oinarritua egonen dena. Ez Euskal Herrian, ez munduko bertze inongo lurraldetan horrelakorik berriz ere gerta ez dadin, gure ahotsa goratzen segituko dugu, herrien eta pertsonen askatasunen alde.

Berako Udala